

DONOSTIA / Asun Balzolaren ondarea Liburutegiari eman dio familiak

1.200 ilustrazio eta egindako lan guztia Udal Liburutegiaren esku utzi du bere alargunak, jendearen eskura jar ditzan

Nagore Irastorza

Iazko ekainaren 23an hil zen Asun Balzola ilustratzaile eta idazle bilbotarra. Donostiarekin betidanik izan zuen harremana, amona bertan jaioa baitzen eta hiria biziki maite baitzuen. Hil zenetik urtebete pasatu ondoren, Sante Bonacci Balzolaren alargunak bere emaztearen ondare guztia Donostiako Udal Liburutegi Nagusiaren esku uztea erabaki du. Erabaki horren berri eman zuten atzo Ramon Etxezarreta Udaleko kultura ordezkariak, Arantza Urkia Udal Liburutegiko zuzendariak, Mariasun Landa idazleak eta Sante Bonacci Balzolaren alargunak.

Asun Balzolaren lan guztia eman dio familiak Udal Liburutegiari. Dohaintzan emandako materialak hauek dira: 1.200 ilustrazio original (zirriborroak barne), 10 diapositiba kaxa, agiri profesionalak eta pertsonalak, berak egindako liburuak eta besteek idatzitakoak, bideoak, katalogoak eta aldizkariak.

Lan guztia Haur Liburuaren Dokumentazio gunean jarriko dute eta hurrengo urtetik aurrera jendearen eskura izango da, antolatuko diren ekimenen bidez. Orain lan guztia katalogatu eta sailkatuko dute, sareko liburutegietan eta Interneten erabiltzaileen esku jartzeko.

Ramon Etxezarretak dohaintzaren garrantzia azpimarratu zuen. Oso garrantzitsua da Asun Balzolaren lanak gordetzea, jendeari haur eta gazte literaturari buruzko informazio zabala eskaini ahal izango diogulako. Aldi berean, familiaren erabakiak harrotzen gaitu, ondarearen gordailu izendatzen gaituelako.

Sante Bonacci Balzolaren senarrak hunkituta hitz egin zuen. Bere lana haurren bihotzetan geratzea nahi nuke. Asunek Euskal Herria maite zuen eta Donostia bereziki, bere amona hemen jaio baitzen.

Mariasun Landak artistaren eta pertsonaren alorrak gogoratu zituen. Artista handi, berritzaile eta karismatikoa izan zen. Euskal Herriko haur literaturaren hastapenetan egindako lana goraipatu zuen. Euskaraz ez zekielako zerbait egin nahi zuen euskararen alde; urte luzetan kanpoan bizi arren, asko maite zuen bere herria.